

# *Amorosen disputa*

HARITSCHELHAR, Jean  
Euskaltzain emeritua

Sarrera data: 2012-02-21

Onartze data: 2012-07-16

*Euskera*. 2011, 56, 3. 833-846. Bilbo  
ISSN 0210-1564

«Potaren galdatzia» lehenik, «Amorez errekeritzia» gero, bi olerki horiek erakusten dute nola ausartzen den mutila edo gizona. Urrats bat gehiago «Amorosen disputa» deritzan olerkiarekin mutikoak, azkenean bortxatzen baitu neskatila. Etxepareren X. eta XI. olerkiak batu behar dira XI.a X.aren segida izanez, erakusten duela zein gaizki, nausa, mespretxua eta mehatxuak baliatuz, portatzen den mutila.

**Hitz-gakoak:** hurrantze, parti, utzi nazazu, bortxatu, ahalgeizuna, maradikatzen.

Después de la «Petición de beso» y del «Requerimiento de amor» el hombre o joven se atreve más y la «Disputa de amantes» se termina por la violación de la chica. Sin embargo, los poemas X y XI de la obra del poeta Etxepare no son más que un solo poema, el XI siendo la continuación de la actitud grosera del varón que añade al escarnio el desprecio y la amenaza.

**Palabras clave:** hurrantze, parti, utzi nazazu, bortxatu, ahalgeizuna, maradikatzen.

Après la «Demande du baiser» et la «Requête d'amour» l'homme s'enhardit et «La dispute des amoureux» se termine par un viol. Toutefois les pièces X et XI du recueil du poète Etxepare n'en forment qu'une, la XI n'étant que la suite de l'attitude grossière de l'homme qui mêle à la dérision le mépris et la menace.

**Mots clés :** hurrantze, parti, utzi nazazu, bortxatu, ahalgeizuna, maradikatzen.

These two poems, «Demand for a kiss» first, and then «Love requirement» both show how daring a boy or man is. In another development or step in the poem called «Lovers' quarrel», the boy finally rapes the girl. Nevertheless, poems X and XI of the work of the poet Etxepare have to be put together, XI being the continuation of X, to show how badly the man behaved, thus adding to the scorn and contempt.

**Keywords:** hurrantze, parti, utzi nazazu, bortxatu, ahalgeizuna, maradikatzen.

Irakurtzen eta, denbora berean, aztertzen delarik Bernat Etxepareren obra, nabari da ez direla nola nahika emanak olerkiak eta *Linguae Vasconum Primitiae* deritzan liburuak baduela bere egitura sakona, ongi asmatua. Badoa lehenik «Doctrina christiana» bere otoitzekin «Judicio jenerala»-rekin bukatzen dela. Doaz gero bi olerki: lehenak, «Amorosen gaztiguya»-k, ospatzen du amodio dibinoa, bigarrenak «Emazten favore» deritzanak, aldiz, amodio profanoa emazteari esker. Zubi gisa har daitezke bi olerkiak, gero, segidan, heldu baitira amodiozko olerkiak, sailkatuz mutikoaren joka moldeak. Alabaina, lehenbiziko lauek erakusten dute mutilaren herabea emaztearen aitzinean, bertze lauek (lau direlakotz enetzat eta ez bost) mutikoaren ausardia. Olerki autobiografikoa eta bi olerki euskararen alde daude azkenik emanak, salatzen dutela Etxepareren garai bateko bizia eta bereziki euskararekilako atxikimendu sakona, baitaki inprimatzeari esker jalgiko dela mundura eta mundu guzian ezagutua izanen dela.

## Ausartzia

Hastetik bururaino mutiko eta neskaren arteko elkarriketaz egina da olerkia. Hasten da, bertze olerki batzuetan bezala, bi neurtitzeko ahapaldia-rekin. Mutikoa mintzo da goxoki neska otoituz, «uztazu» aditza delu leku-ko. Hitz guziek salatzen dute mutilaren helburua, neskaren lilluratzea, xarmatzea: «amore maite» deitzen du erakutsiz maitasunaren kalitatea, galdegiten diola «hurrantze», bat bertzearen hurbil edo kontra egoiteko.

«Hurrantze»/»partitze», bi joka molderen arteko jarrerari buruz mintzo zaio bigarren neurtitzean aipatuz partitzearen ondorio latzak: «damu ginate». Humilki, bainan jadanik dena lausengu, adierazten du hurrantzea dela gero zorionsua, partitzea, aldiz, zorigaitzeko ondorioa.

Ez da batere ados neskaitila berehala galdegiten diola urruntzea «parti gitezen», harek ere otoitzen duela maite duen mutikoa. Bi arrazoin baditu: lehena ingurumenarena, jendearen ikus moldea «bekaizten» hitzak salatzen duena eta bigarrena «irrigarri» izaitea eta, beraz, desohorez betea. Ohar gaitzen ahapaldiaren egituraz, bi errepikapenetan oinarritua.

«Amoriak: othoi, parti gitezen;  
jendiak diradela hasi bekhaitzen,  
laidok hartu gabe geldi gitezen,  
jendek irrigarri gerta eskiten».

Alde batetik, «parti gitezen» lehen neurtitzean, «geldi gitezen» (laidorik gabe) hirugarrenean, «jendiak» edo «jendek» bigarren eta laugarren neurtizetan. Ingurumenaren beldur da emaztea, gaizki jujatua izaitzea, desohoraturik gelditzea. Hortakotz nahi du joan, utzi bere amorantea.

Ez dezake onart separatzea mutilak. Hasten da «Elas» hitzarekin erakutsiz zein hunkia den, nola dolutzen den. Berriz ere mintzo zaio «amoria» deituz, lehen ahapaldian bezala, adierazteko zein atxikia zaion eta segitzen «ene galduia» hitz lerroarekin. Hau da deitoratzeko oihua eta argi dago indar gehiago hartzen duela neurtitz berezi horretan, erritmoari esker, zatitua delakotz 2-4+5 eta ez 6+5. Oihu samina bi zatitan doa, hasieran bi silabakoa eta bukaeran bost silabakoa, azken hitza «galduia» indar handikoa delarik, hondatua, suntsitua balitz bezala.

Bigarren neurtitza «jamas» hitzarekin hasten da, «enoia» hitzarekin bukatzen. Iduri luke indar gehiago hartzen duela zuzenki gazteleratik datorren hitza enplegatuz, zin egiten balu bezala. Erakutsi nahi du zein goxoki dagoen beti amorioaren ondoan, labur direla orduak harekin denaz gero. Alabaina, «enoia» aditzak adierazten du elgarrekilako orduak ez direla aspergarriak, beti zoriontsuak direla. Ez dut ulertzen nolaz Patxi Altunak, bere «Etxepareren hiztegia»-n itzuli duen «enfadado, enojado, gêné» eta ez «aburrido», frantsesez azkenean «ennuyé» dion bezala, hau baita itzulpen egokia.

Ahapaldia bukatzen da galdera batekin «*Honein sarri utzi nahi nuzuia?*» Bi hitz behar dira azpimarratu. Lehenak «sarri» denboraren laburdura adierazten du, bigarrenak «utzi» markatzen duelarik bien arteko separatzea. Galderak berak, alde batetik agertzen du mutikoaren amodio sakona eta bertetik galdegiten du erantzuna, horretan datzala ere maltzurkeria.

Alabaina, neskak, berehala, aitortzen du bere sendimendua lehen bi neurtizetan. Lehenik «gerthuz» aditz lagunak baieztatzen du daukan mai-

tasuna eta gero «oneritze» hitzak errepikatzen du maitasunaren indarra. Bertze bi neurtitzetan, aldiz, joaite alderako bigarren arrazoinak indar gehiago dauka haren ustez: ez da dudarik Jainkoaren beldurra nagusitzen zaiola Jendearen beldurrari. Neskarentzat bekatuan sartua da jadanik «digizi» aditz lagunak «gu» adieraztearekin biak ezartzen dituela bekatuan.

Badaki zer erran mutikoak, berriz ere errepikatzen duela ahapaldiaren lehen neurtitzean «amorea» hitza, errepikatzek baduelarik bere garrantzia elkarriketaren hasiera honetan. Jostatzen da azalduz ez dela urrikaltzearen garaia. Gaztearen erronka da, hain zuzen, gaztetasunaren gozatzea, «carpe diem» leloari jarraikiz, bigarren neurtitzak garbiki salatzen duela:

*«Ienkuaz orhitzeko lekhu diguzu»*

Horiek hola, elgarrekilako harremanak segitzea bultzatzen du errepikatuz azken neurtitzean jadanik olerkiaren hastapenean ziona:

*«Orai partitzeko damu gituzu»*

aldaketa ttipi batekin halere, aditz laguntzailearena «ginate»/«gituzu». Batek «ginate» igortzen duela etorkizunera, bertzea «gituzu» aldiz orainera.

Jendearen esamesak lehenik, Jainkoaren beldurra gero, bekatuan hiltzearen beldurra, horrek oroitarazten du ifernua, sekulako zorigaitza. Biak ikusten ditu bekatuan «hilen bagina», bainan bere buruaz eta bere geroaz bakarrik axolatzen da: «*Damnatu lukezu ene arima*». Azken bi neurtitzek erakusten dute garbiki zertan dagoen: jakin dezala mutikoak ez duela balio lilluratzea («nitán engana») eta ez dezala segi lausengatuz, otoizten duela utz dezan:

*«Niri phorogurik eztidazula»*

Egia erran, azken otoiz honetan salatzen du neskek bere ahulezia.

## **Gero eta ausartago... bortxatzeraino**

Dotzena bat ahapaldi dauka olerkiaren bigarren agerraldiak, azkenean antzerki gisa har daitekellarik bi gazteen arteko elkarriketa.

Alabaina, mutikoak senditu du neskaren azken otoitzak aitortzen zuen ahulezia. Hain zuzen, errepikatuz zenbat maite duen

*«Nik nola dadukat amore zugana»*

erraiten dio neskari, haserre izan orde, eder zaiola Jainkoari holako maitasuna. Mutikoaren jokoa da sinestaraztea ez dela beldurtu behar eta bi gazteen arteko amodioa gauza ona dela. Azken bi neurtitzetan, erdian diren bi hitzak dira lekuko, lehena «eder» etenaren ondotik, bigarrena, aldiz, «gaitzetsi» etenaren aitzinean. Neskak ulertzen du orduan eman dituen arrazoien ez dutela balio izpirik.

Bien arteko eztabaidan badaki mutikoak irabaziko duela; neskaita, aldiz, hasten da otoizka aitortuz bere ahulezia. «Utzi nazazu» otoitza jalgiko da bere erantzun guzietan. Bortxatua izan baino lehen bost aldiz mintzatuko da neska eta bost aldiz gauza bertsuak errepikatuko ditu:

*«Horlako lausenguz utzi nazazu»*

dio lehen ihardespenean,

*«Horlako erantzutez utzi nazazu»*

bigarreanean,

*«Otoizten nizaizu, niri uztazu»*

erantzun honek erakusten duela hasia dela moteltzen. Laugarrena da lehenaren errepika zuzen zuzena:

*«Horlako lausenguz utzi nazazu»*

erakutsiz, beraz, ez dakiela gehiago zer erantzun.

Bosgarrena da azken oihua; neurtitzaren erritmoak 5+2+6 zatikatuz lehen hemistikoa balio handiagoa emaiten dio bi silabako hitzari «otoi» egiazko eskaria:

*«Aldi honetan, otoi, utzi nazazu»*

Badaki mutikoak zer nahi duen eta hortara doa arrazoinamenduari esker. Ikusi dugun bezala baliatu du neskak zuen Jainkoaren jujamenduarien bel-

durra, aldatuz osoki ideia, erakutsiz, aldiz, begi onez ikusten duela Jainkoak bien arteko maitasuna.

Bere erantzunean argi dago senditzen duela neskatilak zer den mutikoa-ren helburua. Badaki xoratu nahi duela hitz ederrekin: lausenguak dudarik gabe eta haien ondorioak, aitortuz, denbora berean, ez dela gai joko horren kontra joaiteko:

*«Nola erhoturik narabilazu!»*

erabili aditzak azpimarratzen duela samurtasuna. Bi aldiz otoiztuko du aha-paldi berean «utzi nazazu» lehen neurtitzean, «niri eutzazu» hirugarrenean, «utzi» eta «eutzi» aditzek adierazten dutela ez dela gehiago «parti gitezen» ziona elkarrizketaren hasieran. Aitortzen du, nahita ez, jokoaren nagusia mutikoa dela eta otoitza dela bakarrik daukan geriza.

Aditu du mutilak neskatilaren otoitza, nola galdegiten dion uztea, bien arteko lokarriaren giltza eskuetan daukala. Berriz ere, jadanik egin duen bezala Jainkoarekin, adieraziko du orain bera dela osoki estekatua, kasik esklabo gisa. Hasten da galdera batekin erasiatuz neska bere portaeraren gatik:

*«Nola diostazu horlako hitza?»*

ez duelarik onartzen eskaintzen dion amodioa eta horretan tematzen delarik. Erakusten du mutilak neska dela egiazko nagusia, kasik hobenduna, aditzek salatzen duten bezala «joan daraudazu» eta «gero gathibatu», alde batetik bihotza, bertzetik gorputza. Azkenean, aurkezten du bere burua osoki emana balitz bezala, egiazko esklaboa «gathibu» hitzak erakusten duena.

Bigarren aldikotz galdegiten du neskak, otoitzaren bitartez, aske izan da-dien:

*«Horlako erantzunez utzi nazazu»*

Mutil hertsatzailearen aitzinean pentsatzen du bertze jokatzeko manera. Asmakizun giroan jartzen da etxekoen beldurra aurkeztuz:

*«Gure etxian ohart badakizkigu  
Biok jagoitiko z galdu gituzu»*

Jadanik aipatua zuen argudioa, jendeen erran-merranak, aldatzen du pixka bat aitamek gatziguaren beldurra aitzinatuz. Ikus daiteke ez dakiela gehiago nola erantzun.

Argudio horren aurka joanen da mutila. Nola erran dezake neskatilak barrandan dagoela jendea eta hori «bethi» ez duela deus bertzerik egiteko. Hori da mutikoak egiten dion galdera. Erakusten du orduan nola elgarretaritzen diren, «sekretuki» doalarik maitearen gana eta nola neskatilak hauta dezakeen juntatzeko garai egokia. Bada hitzen arteko joko berezi bat, jendearen ikuspegia bi gazteei buruz: «gugana», mutikoaren ibilera maiteari buruz: «zugana» eta neskatilaren joera biltzen delarik amorantearekin: «nigana». Urrats hori egina du orduan bertan «zu» delakotik «ni» delakora joan delarik «gu» delakoaren egiteko.

Argi dago neskak erantzuten diolarik senditzen duela lanjerra.

«*Pitxer ebilia hautsi diohazu*» erran zahar aire bat dauka. Ikusten du eta hala aitortzen «pitxer» gisa daukala bere burua, gauza bat erabilia egunero eta hausteko arriskuan. Alabaina, «hautsi» aditzaren pean dago kantu herrikoiak adierazten duena diolarik «*hegal petik lumaño baten galtzea*». Ez dezake onar desohorea, laidostatua senditzen delakotz, «laido handiz» aitortzen duen bezala. Otoitzaren bitartez «niri uztazu» botako dio mutikoari, azpimarratuz ez duela sekulan amore emanez, ez dela «atsegin» emaila.

Ulertu du mutikoak fermuki mintzo dela neskatila, bainan otoiztearekin salatzen duela bere ahulezia. Orduan jokaeraz aldatuko da. Amorante kartsu bilakatzen da hasten duelarik bere predikua «Amore maitia» hitzekin. Azaltzen du bere maitasunaren berotasuna, ez dela ezerez hura gabe «*zutan diagozu ene bizia*». Hitz horien egiaztatzeko konparaketan sartzen da «zu» eta «herria»-ren artean, erran nahi baita pertsona bakar baten aitzinean egoiteak balio handiagoa daukala «herri» oso baten fama baino. Ba ote da laudorio handigorik?

Gehiegikeria dudarik gabe eta ez du sinesten neskak:

*«Horlako lausenguz utzi nazazu  
Ixil bazinite nahi nikezu»*



Bigarren aldikotz errepikatzen du ikusten duela mutikoaren jokaera mal-tzurra. Bainan ez daki nola erantzun berriz aipatzen baitu Jainkoaren beldurra. Jadanik errana zuen elkarrizketaren hasieran:

«*Bana Jeinkoaren nuzu beldurtu*»

erantzuna ukan zuelarik segidan:

«*Jeinkuaz orhitzeko lekhu diguzu*»

Hain zuzen gogoan dauka mutikoaren errana eta kasik hitz berekin mintzo da.

«*Jeinkoaz orhitzeko ordu lukezu*»

«lekhu» zion mutilak, «ordu» erantzuten dio neskak. Argudiotzat, otoizten duelarik uztea, adierazten dio bertze neskak ere badirela eta joan dadien haien gana. Argudio makala, ihes bidea, daukan ahulezia agertzen duela bai lehen neurtitzean «utzi nazazu», bai azkenean «niri uztazu».

Badaki mutilak eramaten duela partida eta jokaeraz aldatzen da. Balakari edo lausengari izan den bezain bat kaskail bilakatzen da orain bi galdera garratz eginez:

«*Jeinko beldurturik jarri ziraia?  
Halaz despeditu nahi nuzuia?*»

Bigarren galderan «despeditu» hitzak agertzen du mutilaren hasarrea, gaitzitua baita osoki. Orduan botatzen dio azken hordagoa, maitale zena gerlari bilakatzuz:

«*Hebetik joan gabe ene buruia  
Egin behar duzu ene nahia*»

Nola erantzun holako hitzei. Lehenik, galdera bortitz baten bidez, galdera horretan agertzen delarik lehen aldikotz «bortxatu» aditza. Neskatilak senditua du lanjerra. Protestaren ondotik jalgitzen da, azken aldikotz, beti errepikatzen duen otoitza. Neurtitzaren erritmoak salatzen du neskak daukan beldurra, durduzaturik dagoela (4/2/5):

«*Aldi honetan / othoi / utzi nazazu*»

Egiazko otoitza, egiazko eskaria.

Horren ondotik dator azken argudioa, hitzemanenez bertze egun batez hurranduko zaiola eta, orduan, emanen diola nahi duenaren egiteko baimena. Osoki nekatua, hitz estaliak baliatuz «nahi duzunori», neskatilak uste du bere maitalearen aztaparretarik eskapatuko dela. Debaldetan! Mutilak aipatzen du holako erran zahar bat:

«*Haraintzinakorik duzu errana*»

bigarren eta hirugarren neurtitzetan hedatzen dena, erran zahar ezagutua «carpe diem» idurikoa, oraina baliatuz, geroa ez baita batere segurra.

«*utzi dazanorrek eskuian duiena  
nahi duienian eztukeiela*»

hizkuntza guzietan dagoen erran zaharra.

«*Un tiens vaut mieux que deux tu l'auras*» frantsesez, «*Prefiero un bien presente a uno por llegar*» gaztelaniaz gogoratuz ere Oihenartek bildu duela «*Gerokoa hobe ustezkoa, nahiago dut on oraikoa*», *Refranes y sentencias*-etan aurki daitekeiela «*Nahiago dot to bat ze amabi emon deiat*» eta Axularrek geroaz mintzo delarik nahi dio irakurleari erakatsi «*gero dioenak bego dioela*».

Erran zaharra airoski aldarrikatuz, mutilak botatzen du garailearen oihua:

«*Hitzak haribira, dugun egina*»

aurkatzen dituela «hitzak» eta «egina» hobetsiz egintza, «dugun» inperati-boari esker.

Neskaren auhenak entzun daitezke segidan datorren ahapaldian, desohoratua izan delakotz, ahalgea nagusitu zaiolakotz:

«*eman derautazu ahalgeizuna*»

dakigularik zer zen, garai haietan, birjinasunaren galtzea ezkondu aitzin neskatala batentzat. Diolarik:

«*Maradikatzen dut neure fortuna*»

neurt daiteke haren atsegabea aldarrikatzen diola mutilari:

«Zeren jin bainendi egun zugana»

Nahiz bere buruari mintzo zaion, erasiatzen du mutikoa denbora berean.

## Nausa

Den bezala agertzen da mutila. Harremanetan zagoen neskatilarekin eta elgarretaratu direlarik bazuen bere ideia, asmatua zuen helburura nahi zuen joan. Nahi zuen lilluratu neska, hitz ederrez ausartzen zelarik. Emeki emeki, ikusiz ez zuela neskaren baimenik ukanen, ausartu da gehiago eta, azkenean, bortxatu du.

Neskaren erasien aurka joaiteko ironiaz beterikako mespretxua erakutsiko du. Hasten da «amore» hitzarekin, ez gehiago amore maite(a), bainan otoizten du neska harek egiten zuen bezala:

«Amore etzitela, othoi despara»

«othoi» horrek baduela trufa aire bat, doalarik bereziki «despara» aditzarekin etsimendua aditzera ematen duelarik. Galdegiten dio gero egon ditezen biak buruz buru zerbait baitu erraiteko:

«Honat begitartez itzul zakitzat»

Zer du erraiteko? Damu dela gertatu denarekin, urrikalkor agertu dela, hitz kontsolagarriekin aitortuko duela egin duen kaltea, ezkontzeko bidean daudela? Aitzitik, irri maltzur batekin dena trufa eta mespretxu konparaketa egiten du «adiskide» on eta «senhar» gaiztoarekin. Geroari buruz «ene baitan dukezu» erraten dio deblauki ez dela ezkontzarik izanen, ez direla senar-emazte izanen, «uzten» duela, hobe dela neskarentzat adiskidetasuna ezinez ezkontza tzar bat. Hala nola mutilak baztertzen duen neskatila. Bainan ez dut uste horretan bukatzen dela olerkia.

Egia da *Linguae Vasconum Primitiae*-ren lehen edizioan «ordu gaitzareki horrat zakitzat» agertzen dela bertze olerkien tituluak bezala eta, beraz, har zitekeen olerki labur baten titulu gisa.

Urkijo-ri esker, publikatu duelarik Etxepareren lehen edizioaren «fac simile»-a eskaini zien orduko euskaltzaleei aztertzeko parada. Lafon izan da Etxepareren obraren lehen ikertzaile zientifikoa.

Jadanik 1951ko lehen artikuluan «La langue de Bernard Dechepare» esplikatzen zuen «Doktrina Christiana» zela harentzat multzo bat eta «Amorosen gaztiguya»-k bigarren zenbakiarekin zoala, orotara 15 olerki zirela.

Bertze 1957ko artikuluan «Sur la versification de Dechepare» garbiki baieztatzen du zerrenda osoa eta agertzen dira:

X. Amorosen disputa

XI. Ordu gayçarequi horrat zaquitçat

bi olerki balire bezala. Idazten zuen ere « *Les pièces X et XI sont en vers de 11 syllabes. La coupe est après la 6<sup>e</sup> syllabe ; elle concorde le plus souvent, mais pas toujours (ainsi en 14 et en 37) avec le sens. Les strophes sont de 4 vers ; toutefois la pièce X commence par un distique. Le titre de la pièce XI est constitué par un vers de 11 syllabes.* »

Berriz errepikatzen du XI. olerkiaren titulua neurtitz bat dela, jadanik errana baitzuen 1952ko artikuluan «Notes pour une édition critique et une traduction française des *Linguae Vasconum Primitiae* de Bernard Dechepare» () deritzanean. Hona zer idatzi zuen:

« XI Ordu gayçarequi horrat zaquitçat *L'absence de toute ponctuation accroît encore l'obscurité de cette petite pièce. On ne sait même pas si les quatre vers sont placés dans la bouche de la même personne. Le seul point clair est qu'il s'agit d'une dispute. Ce quatrain dont le titre forme un vers, est écrit dans le même mètre que la pièce précédente. S'agit-il de la même femme ? Est-ce un épilogue de la pièce précédente ?* »

Hona, ene ustez, ikerle on baten lana. Aitortzen du iluna dela olerki tti-pi hori. Ez dakiela nor mintzo den, bainan ohar onak egiten ditu, «disputa» edo eztabaida dela eta neurtitzak hamaika silabakoak direla; are gehiago, egiten dituen bi galderak oso egokiak dira eta biei hona ene erantzunak:

« *S'agit-il de la même femme ?* » Erantzuten dut: «*Bai*». « *Est-ce un épilogue de la pièce précédente ?* » Ihardesten dut ere: «*Bai*»

eta beraz X. eta XI. olerkiek bat egiten dute. Har dezagun delako titulua:

«*Ordu gaitzareki horrat zakitzat*»

Mintzo da neskatila eta erantzuten dio mutilari honek galdegiten ziolarik:

«*Honat begitartez itzul zakitzat*»

«Honat» aditzondoa, erran nahi baita «nire gana» trufaz betea den gomita da. Hala senditu du neskatilak eta ahoan bilorik gabe ihardesten dio finki aurkako aditzondoarekin «horrat», hain zuzen aditz bilakatuz «horrat zakitzat», indar gehiago ematen diola erantzunari. Bertzalde «*Ordu gaitzareki*» esaera baliatzen du mutilaren madarikatzeko. Erantzun horrekin neskatilak bukatzen du elkarrizketa bortizki. Lafon-en itzulpena da: «*L'expression employée ici équivaut à esp. i Vaya V, enhora mala ! Allez vous-en au diable !* »

Neskak bukatu balinbadu, mutilak ez oraindik. Erran zaharrak dio: «*Apezak azken hitza bere*», mutilak ere nahi du azken hitza eta nausa segitu.

«*Orai behar duguia konkista berri*»

Baliatzen du hiztegi militarra «konkista», gaztelu bat hartzen balu bezala. Harentzat lehen «konkista» bortxatzea izan da eta galdegiten du bigarrenaren garaia etorria den. Bigarren neurtitzak indartzen du lehenak daukan nausa. Alabaina «gomita handi» doa «behar duguia»-rekin eta «handi» ize-nondoak, irri maltzurrez betea, erakusten du ez dela nor nahi neskatila, gauzak handizki egiten dituela, ez zaiola aski eztei eguna, behar duela ere biharamuna «Eztei iraganez» esaera itzul daiteke gazteleraz «tornaboda» hitzarekin, ezteien bigarren eguna Covarrubias-en arabera: «*Quando la fiesta de la boda, aviéndose en casa de uno de los consuegros se buelwe a hazer en la casa del otro.*»

Mespretxuz beteak dira azken bi neurtitzak:

«*Hanbat etzirade andere larri*  
«*Merexi duzuna narzake sarri*»

Lehenean mutilak bere jujamendu lazgarria dakar, bigarrenean «narçaque» aditza da bereziki iluna irarkolak eginikako hutsa baita dudarik gabe.

Lafon-ek bi aterabide proposatzen ditu: « *On ne voit pas à quel verbe «narçaque» peut se rattacher. Erratum pour «narraque» «je dirais» ou pour «naçaque» «je ferais».* » Azkenean, bere itzulpenean hautatu du «narraque», Akesolok ere. Mespretxua ez da aski mutilarentzat, mehatxuaz ere baliatzen da; «merexi duzuna» aipatzen duelarik erraten du deblauki prest dagoela gertatu dena zabaltzea berehala, denek jakin dezaten neskatilaren desohorea.

«*Una mujer, gozarla y dejarla*» esaera hori entzun daiteke espainiar antzerki batean, Don Juan Tenorio batek eman lezakeena. Hau da mutilaren xede edo helburua eta XI. olerkia lotuz X.ri hobeki ulertzen da zer gizatzarra den mutila.